

Enpresa kopuruak Euskal AEn % 0,9 egin du behera 2022an eta enpleguak, % 0,2 gora

100 enplegatuko eta gehiagoko enpresen % 77k Euskal AEn du egoitza

Euskal AEn, jarduera-sektoreetako 151.088 enpresak dihardute 2022ko urtarrilaren 1ean, aurreko urtean baino 1.466 enpresa gutxiagok (–% 0,9), Eustatek emandako datuen arabera. Enpresa horiek beren jarduerak 168.483 establezimendutan betetzen dituzte (fabrikak, saltokiak, bulegoak...), eta urtebete lehenago baino 1.411 gutxiago (–% 0,8) erregistratu dira. Establezimendu horiek honela banatzen dira: % 14,4 Araban; % 51,8 Bizkaian, eta % 33,8 Gipuzkoan.

Establezimendu horietan erregistratutako enplegatuen kopuruari dagokionez, aldakuntza positiboa izan da, % 0,2koa, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisialdiak eragindako salbuespen-egoeraren ondoren. Hiru sektorek tasa positiboak izan dituzte, batezbestekoaren gainetik: Informazioa eta komunikazioak (% 5,1), Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna (% 2,3) eta Eraikuntza (% 1,1).

Behera egin duten sektoreen artean, Nekazaritza eta abeltzaintza eta arrantza sektorea nabarmendu behar da, aurten enpleguan % 7,8 gutxiagorekin, bai eta Finantza-jarduera eta aseguruena ere, % 2,5 gutxiagorekin.

Euskal AEko enplegatuen banaketa ehunekotan eta urte arteko aldakuntza jarduera-adarren arabera (A10) lurralde historikoari jarraiki. 2022/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Pertsona enplegatuenak	Aldak. %	Pertsona enplegatuenak	Aldak. %	Pertsona enplegatuenak	Aldak. %	Pertsona enplegatuenak	Aldak. %
Guztira	100,0	0,2	100,0	0,7	100,0	-0,1	100,0	0,5
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	1,9	-7,8	1,5	-11,1	2,6	-6,4	1,8	-6,4
Industria, energia, saneamendua	16,2	0,0	20,0	1,1	14,4	-1,7	16,4	1,0
Eraikuntza	2,6	1,1	2,7	2,6	2,7	1,1	2,5	0,3
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	3,8	-0,8	4,3	-0,3	3,7	-0,8	3,9	-1,2
Informazioa eta komunikazioak	6,4	5,1	5,7	5,7	7,3	4,9	4,9	5,2
Finantza jarduerak eta aseguruak	3,6	-2,5	3,0	-5,5	4,0	-1,5	3,2	-3,4
Higiezin jarduerak	1,7	-0,9	2,1	-4,2	1,6	-0,9	1,6	0,1
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	4,8	-0,8	4,7	1,7	5,2	-1,3	4,0	-0,8
Adm. publik hezkuntza, osasungintza	11,4	2,3	15,4	1,4	10,8	2,0	10,7	3,3
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	2,9	-0,6	3,1	1,7	2,8	0,0	2,9	-2,4


Data 2022ko Abenduaren 14a

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Egiturari dagokionez, kopuru handiena izan duen sektorea *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* izan da, % 35,7; ondoren, *Jarduera profesional eta lagungarriak* (% 16,3) eta *Eraikuntza* (% 11,9).

Establezimenduen tamainaren arabera banaketa aurreko urteetan bezalatsu izan da. 2.553 establezimenduk –guztien % 1,5– baino ez dituzte batez beste 50 langile edo gehiago enplegatzen; baina, oro har, enplegatutako pertsona guztien % 41,5i ematen diote lana. Hala ere, 122.164 establezimendu —guztien ia hiru laurdenak—, berriz, tamaina txikikoak dira (3 enplegatu baino gutxiago), eta, bertan, enplegatu guztien % 16,1 daude. Hala, aurten, 3 enplegatu baino gutxiagoko establezimenduetan galdu da enplegurik gehien; 2.603 enplegu gutxiago daude. Enplegua gehien hazi da, berriz, 10-19 enplegatuko eta 50 enplegatutik gorako estratuetan; 2.498 eta 2.140 enplegatu gehiago izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEn enplegatuten eta establezimendu kopuruaren banaketa, jarduera-adarraren arabera (A10). 2022/01/01



Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Establezimenduen jarduera-adar nagusien arabera batez besteko tamainari dagokionez, enplegatuen kontzentrazio handiena Industria, energia eta saneamenduaren sektorean erregistratu da, eta Euskal AEn, oro har, establezimenduko batez besteko tamaina 16,3 langilekoa da. Araba nabarmentzen da (20,3 langile), eta batez besteko tamaina Bizkaian 14,4 da eta Gipuzkoan, 16,6 langile establezimendu bakoitzeko.

Euskal AEko enplegatuen banaketa ehunekotan, jarduera- adarren arabera (A10), lurralde historikoari eta sexuari jarraik. 2022/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	55,5	44,5	57,1	42,9	54,8	45,2	55,6	44,4
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	79,3	20,7	78,2	21,8	82,4	17,6	76,0	24,0
Industria, energia, saneamendua	79,1	20,9	80,2	19,8	79,4	20,6	78,2	21,8
Eraikuntza	89,5	10,5	88,8	11,2	89,3	10,7	90,1	9,9
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	54,3	45,7	54,4	45,6	54,9	45,1	53,5	46,5
Informazioa eta komunikazioak	64,6	35,4	65,2	34,8	64,7	35,3	64,2	35,8
Finantza jarduerak eta aseguruak	44,1	55,9	44,3	55,7	44,8	55,2	42,4	57,6
Higiezin jarduerak	47,8	52,2	42,0	58,0	48,5	51,5	48,7	51,3
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	51,2	48,8	52,8	47,2	51,3	48,7	50,1	49,9
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	32,7	67,3	33,3	66,7	33,0	67,0	31,7	68,3
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	45,3	54,7	45,3	54,7	46,1	53,9	44,2	55,8

Data 2022ko Abenduaren 14a

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Sexuaren arabera, Euskal AEko enplegatuen % 44,5 emakumeak izan dira 2021ean, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago. Enpleguaren saldo positiboa emakumeetan erregistratzen da (+5.737), eta gizonetan, berriz, negatiboa (-3.421). Sektore feminizatuenak Osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak izan dira (% 77,4 emakumeak), bai eta Hezkuntza (% 68,7) eta Zerbitzuak (% 62,5) ere. Enplegua, nagusiki, gizonezkoena da Eraikuntzaren sektorean (% 89,5) eta Industria eta Lehen sektorean (% 79, bi kasuetan).

ENPRESAK


Establezimenduen jardueren euskarri diren enpresa guztien (unitate juridikoak) % 97,1ek Euskal AEn dute egoitza eta 4.387ek, Estatuko beste leku batean. 100 enplegatu edo gehiagokoetatik, erkidegoan egoitza dutenen ehunekoa % 77 da. Erdiak baino pixka bat gehiagok, 76.050 enpresak, Bizkaian dute egoitza; 49.926k (% 33,0), Gipuzkoan, eta 20.725ek (% 13,7), Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 6,0 enplegatu enpresako eta 5,4, establezimendu bakoitzeko. Forma juridikoa pertsona fisikoa duten titularrak 1,4 enplegutara baino ez dira heldu, bai enpresako bai establezimenduko; gainerako forma juridikoen kasuan, ordea, batezbesteko horiek 12,6 eta 10,1 pertsonakoak dira, enpresa eta establezimendu bakoitzeko, hurrenez hurren.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Enpresek dituzten urteei dagokienez, Euskal AEko enpresen panoraman enpresa berri samarrak daudela azpimarratu behar dugu. Euskal AEn diharduten enpresen % 30,9k bost urte edo gutxiago dituzte, eta bi urte edo gutxiagokoak % 13,7 dira.

Establezimenduko jaiotza- eta heriotza-tasak. Euskal AE



Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta ixteari buruzko estatistika

Txandakatzeari dagokionez, establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuta, 2021ean 13.019 establezimenduk hasi eta 14.430ek eten dute jarduera; alegia, amaierako saldo negatiboa 1.411 establezimendukoa izan da. Ireki duten establezimenduen tasa (sortutako establezimenduen eta stock-ean dauden arteko zatidura) % 7,7koa izan da eta itxitakoen tasa, % 8,6koa. Ondorioz, hazkunde garbiko tasa negatiboa izan da (-% 0,8).

Txandakatze handiena honako arlo hauetan gertatu da: *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* (alta guztien % 29,0 eta baja guztien % 32,0); *Jarduera profesional eta osagarriak* (alten % 18,0 eta bajen % 17,9), eta *Eraikuntza* (alten % 16,5 eta bajen % 16,2).

Nortasun juridikoaren arabera demografia aztertzean, pertsona fisikoaren formularen bidez sortutako establezimenduak nabarmendu behar dira; alten % 67,6 eta bajen % 67,0 eragin dute.

Establezimenduen demografia Euskal AEn. 2022/01/01

	Altak	Irteerak
Guztira	13.019	14.430
Jardueraren arabera		
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	273	786
Industria, energia, saneamendua	573	662
Eraikuntza	2.150	2.336
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	3.775	4.619
Informazioa eta komunikazioak	487	422
Finantza jarduerak eta aseguruak	333	408
Higiezinen jarduerak	215	285
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.348	2.586
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	1.626	1.297
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.239	1.029
Nortasun juridikoaren arabera		
Pertsona fisikoa	8.800	9.664
Akziokako elkarteak	276	446
Elkarte mugatua	2.863	3.163
Bestelako elkarteak	1.035	1.098
Bestelako lege-formak	45	59

Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta itxeari buruzko estatistika

Pertsona enplegatuei dagokienez, pertsona fisikoaren forma juridikoa duten establezimenduek establezimendu berrietan enplegatutako pertsonen % 38,8 hartu dute eta desagertutako establezimenduetan enplegatutako pertsonen % 43,5. Sozietate mugatuak ere nabarmentzen dira: alta emandako establezimenduetan enplegatutako pertsonen % 40,5 eta baja emandako establezimenduen % 33,0.

Establezimenduen tamainaren arabera, estraturik dinamikoena 2 enplegatu edo gutxiagokoa da, ohikoa den bezala. Hark bakarrik alta guztien % 89,3 eta baja guztien % 91,1 erregistratzen ditu.

Beste aldean, establezimendu handien (50 enplegatu edo gehiago dituztenak) estratuari dagokionez, alten % 0,2 eta baje % 0,1 baino ez dira. Aldiz, establezimendu berrietako pertsona enplegatuen alta guztien % 11,1 eta baja guztien % 7,8 dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62